

Alonsotegiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

Parte-hartze txostena



AURRERAKIN FASEA
2025eko uztaila

AURKIBIDEA

1/ SAIOEN DISEINUA	3
2/ PARTE-HARTZE DATUAK	9
3/ ONDORIO OROKORRAK	10



SAIOEN DISEINUA

- **Saioan parte hartuko dute:** Taper, udal arkitektoa eta Hiritik At.
- **Saioa dinamizatuko du:** Hiritik At
- **Saioaren iraupena:** 100-120 min

- **Helburuak:**

Gaikako tailerrak egitea, HAPOaren diagnostiko-dokumentua aberastuko duen eztabaida bultzatzeko eta herritarrek udalerrriaren etorkizunari lotutako funtsezko ideiei buruz duten iritzia jasotzeko. Ideia hauek hurrengo fasean aztertu eta garatuko dira. Erredakzio-taldeak egindako dibulgazio-dokumentuetan oinarrituta, saioen helburua dokumentu hau baliozkotzea, zalantzan jartzea edo hainbat gairi buruzko hausnarketak egitea da, hala nola, mugikortasunari, espazio publikoari, etxebizitzari, jarduera ekonomikoei... buruz eta, zehatzago, Aurrerakinean planteatutako proposamenei buruzkoak. Horretarako, garrantzitsutzat jotzen da, halaber, fase desberdinetan egindako partaidetza-tailerren arteko jarraipena bermatzea. Horretarako, interes handieneko gaiak identifikatu dira, edo polarizazio handiena eragiten dutenak, eztabaida sortu eta horri buruzko iritzia mahai gainean jarri. Metodologia landuko den gaira eta bizilagunen errealitate sozialera egokitu da. Partaidetza kualitatiboa lortzen saiatu gara.

- **Parte-hartzeko deialdia:**

Udalerriko kolektiboak eta taldeak identifikatu dira (dagoeneko eratuta daudenak), eta berariazko deialdia egin da parte har dezaten. Saio irekietan parte hartzeko zailtasun handiena duten pertsonekin ahalegin berezia egin da, beraien narratiba eta diskurtsoa presente egon daitezen; hain zuzen ere, adinekoak, mugitzeko arazoak dituztenak, hizkuntza menderatzen ez dutenak... edo parte hartzeko beste oztopo batzuk dituztenak. Udala arduratu da komunikatua egiteaz eta aurreko fasean parte hartu zuten pertsonen deialdiaz.

- **Saioetan landuko den tematika:**

Aurreko fasean egindako parte hartzeko tailerretan bezala, bi saio hauek ere galdera hau izan dute gidarizat:

**Alonsotegin,
nola lortu dezakegu denontzako bizigarriagoa den etorkizun bat?**

Gai bakoitzari buruzko eztabaida eta elkarrizketak aipatutako galdera horretan oinarrituta egin dira, fokua Alonsotegiko etorkizunean jarrita beti; eta, aldi berean, genero-ikuspegia eta dauden beharrian guztiak kontuan hartuta, ingurumenaren aldetik Alonsotegi herri jasangarria bilakatu nahi dela ahaztu gabe.

- **Lehenengo saioaren azalpena**

- **Gaia**

Lurzoru urbanizagarria, lurzoru urbanizaezina eta mugikortasuna.

- **Egitura eta denborak**

(10') Sarrera: saioaren aurkezpena, prozesu parte-hartzailearen testuingurua, parte hartzeko mugarren azalpena eta parte hartzeko bideak.

(20') Aurrerakinean proposatzen diren gako nagusiak landutako gaiari dagokionean.

(60') Talde dinamika: taldeka identifikatutako beharren betetze-maila baloratu da.

(10') Itxiera: hurrengo saioaren data gogoratu eta saioan landuko dena labur azaldu da.

- **Helburu zehatza**

Parte-hartze tailerren arteko jarraipena bermatzea du helburu. Aurrediagnostiko fasean herritarrek identifikatutako gabezia, nahi eta beharretatik abiatuta baloratu dira Aurrerakin fasean proposatutako esku-hartzeak.

Lehenengo saio honen xedea udalerri mailako azterketa eta balorazioa egitea izan da.

- **Metodologia**

Beharren betetze-maila eta gogoeta.

Parte-hartzaileak talde txikietan batu dira eta gai ezberdinak landu dituzte. Aurrediagnostiko-faseko partaidetza-tailerretatik ateratako beharrak identifikatu dira, eta parte-hartzaileek horien betetze-maila baloratu behar izan dute, 1etik 5era, hau da, Aurrerakin-dokumentuan proposatutako esku-hartzeek premia horiek zenbateraino betetzen dituzten. Betetze-mailaz gain, gai horri buruz hausnartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dute.

Mahai bakoitzean Aurrerakinaren plano ezberdinak izan dituzte euskarri gisa, eta 20-30 minutu eskaini dizkiote gai bakoitzari.

Adibidea:

2/ EKIPAMENDUAK/ EQUIPAMIENTOS									
					AURRERAKIN MAILA (OPORTUNIZADOREAK)				
					1	2	3	4	5
Nola baloratzen dituzte planteatzen diren ekipamenduak, tamaina eta kokapenari dagokionez? (Kultura, kirola, osasuna, zaintza, hezkuntza...) ¿Cómo valoráis los equipamientos que se plantean en cuanto a tamaño y ubicación? (Cultural, deportivo, sanitario, cuidados, educativo...)									
Ekarpenak edo hausnarketak: Aportaciones o reflexiones:									
01									
Ekipamendu erabilera moduan definituta ez dagoen espazioren bat erabilera horretarako destitatu beharko litzatekeela uste duzue? Non eta zertarako? Non eta zertarako? ¿Consideráis que algún espacio no definido como uso de equipamiento debería destinarse a ese uso? ¿Dónde y para qué?									
Ekarpenak edo hausnarketak: Aportaciones o reflexiones:					BAI/ SI				
02					EZ/ NO				

- **Taldean hausnartzeko identifikatutako beharrak**

1/ ESPAZIO PUBLIKOA ETA EKIPAMENDUAK

- > Proposatzen diren erabilerak
- > Ekipamenduetara bideratutako espazioak
- > Espazio libreak
- > Etxebizitzara bideratutako espazioak
- > Industriara bideratutako espazioak

2/MUGIKORTASUNA

- > Oinezkoen sarea
- > Bidegorri sarea
- > Garraio publiko sarea
- > Udalerrirako sarrera eta irteera berriak
- > Aparkalekuak

3/ ESPAZIO LIBREAK ETA LANDA EREMUAK

- > Lurren katalogazioa
 - > Lurzoru urbanizaezin bezala katalogatutako lurren egokitzapena
 - > Lurzoru urbanizagarri bezala katalogatutako lurren egokitzapena
 - > Lurzoru urbanizaezin izan beharko liratekeen lurzoru urbanizagarriak eta alderantziz
- > Lurzoru ez urbanizagarrien katalogazioa
 - > Babes bereziko eremuak
 - > Baso eremuak



- **Bigarren saioaren azalpena**

- **Gaia**

- Hiri-erlaketarako jarduera estrategikoak

- **Egitura eta denborak**

- (10') Sarrera: taldeen aurkezpena eta saioaren egituraren azalpena

- (20') Aurrerakinean proposatzen diren jarduera estrategiko ezberdinen gako nagusiak azaldu

- (60') Talde dinamika: jarduera estrategikoen balorazioa, parametro batzuen arabera

- (10') Itxiera: hurrengo pausuak zeintzuk izango diren azaldu

- **Helburu zehatza**

- Parte-hartze tailerren arteko jarraipena bermatzea izan da helburua. Aurrediagnostiko fasean herritarrek identifikatutako gabezia, nahi eta beharretatik abiatuta baloratu dira Aurrerakin fasean proposatutako esku-hartzeak.

Bigarren saio honen xedea eremu ezberdinen azterketa eta balorazioa egitea izan da.

- **Metodologia**

- Jarduketa estrategiko bakoitzaren balorazioa egin da, parametro batzuen arabera. Parte-hartzaileak talde txikietan bildu dira, eta bi jarduera estrategiko aztertu eta baloratu dituzte. Jarduera estrategiko bakoitza ebaluatzeko 30 minutu aurreikusi dira. Jarduera estrategiko bakoitza honako parametro hauen arabera baloratu da, besteak beste:

- > Jardueraren kokapena

- > Loturak

- > Oinezkoentzako loturak

- > Ibilgailu ez motordunentzako loturak

- > Ibilgailu motordunentzako loturak

- > Eremurako sarbideak

- > Zerbitzu edo sistemak

- > Aparkalekuak

- > Espazio librea

- > Ekipamenduak

- > Etxebizitzak (dauden kasuetan)

- > Kopurua

- > Tipologia

- > Industria (dauden kasuetan)

Galderei erantzunez jarduera bakoitza baloratuko da, eta lan-mahai bakoitzak ekarpenak edo zehaztapenak egingo ditu eremuka.

Adibidea:

AMU.08 LA BARRANKA

Ámbito que procede del PERI La Barranca de las normas subsidiarias de Alonsotegi. Mediante esta actuación se plantea reconocer las edificaciones existentes en la zona (48 viviendas) y permitir la construcción de una vivienda por parcela en el supuesto que tengan frente a viario público. En cuanto a la urbanización, se pretende mejorarla, ampliando, cuando sea posible el ancho de la calzada. También se propone dotar de espacios verdes públicos de carácter local que contribuyan a recualificar la zona, así como de un espacio de aparcamiento en la entrada desde la calle Loibe, que coadyuve a resolver, en parte, el déficit de aparcamiento existente en ámbito. En relación con los sentidos de circulación de las calles, se recomienda contemplar con doble sentido de circulación el tramo que se encuentra en la margen izquierda del arroyo Pagobakotxaga, dejando el vial que sube hacia Azordoiaga como unidireccional debido a su anchura.



Orokorrean, nola baloratzen duzu jarduketa hau urbanizazioa hobetzeari, mugikortasunari eta espazio librei dagokionez?

En general, ¿cómo valoras la propuesta en cuanto a mejora de urbanización, movilidad y espacios libres?

Aktuazioa hobetetzeko neurriak hartu daitekeela uste duzu?

¿Crees que se puede tomar alguna medida para mejorar la actuación?

Besterik?

¿Quieres sumar alguna cuestión?

- **Genero ikuspegia, zehar-lerro modura aplikatuta**

Parte-hartzea, generoaren ikuspegitik, ezinbesteko praktika da. Izan ere, hirigintza arlora emakumeen bizi-esperientzia ekartzen du eta, gainera, andre askok egunerokoan duten egitekoa ikusaraztea ahalbidetzen du. Erronka handia da partaidetza-prozesu inklusiboak, integratuak eta lotesleak egitea, ahots ugariak eta anitzek pisua izan dezaten. Komeni da parte hartzeko kanal eraginkorrak irekitzea espazio publikoaren, zuzkidura-ekipamenduaren eta abarren esparruan elementuak edo espazioak definitzeko eta diseinatzeko.

Hirigintzari buruzko begirada feministak zera esan nahi du: hiri-paisaia esku hartu nahi bada, parekatu egin behar direla produkzio-mundutik eratorritako eskakizunak eta erreproduktzio-munduaren eskaerak. Hau da, haurren, adinekoen edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen premiak erdigunean jarri behar direla, baina ez subjektu homogeneo gisa, baizik eta beste aldagai batzuk kontuan hartuta, hala nola, adina, arraza edo sexu-orientazioa.

Espazio publikoari dagokionez, kontuan hartu beharko dira sarbideak, irisgarritasuna, materialak, altzariak, landaredia, argiztapena eta eguzkitzea, ura... eta pertsona guztientzako espazio publiko atseginak eta kalitatekoak sortzen laguntzen duten gainerako alderdiak, gogoan izanda mendeko pertsonen autonomia eta zaintzaileen askatasuna (gehienak emakumeak) sustatu behar direla.

Espazio publikoak erabiltzeko autonomia eta askatasun gisa ulertu behar da segurtasun-sentsazioa. Garrantzi handiko aldagaia da, pertsonen mugimenduak baldintzatzen dituen; hala, espazio publikoak etsai-girokoak eta besteenak direla iritziz gero, utzi egiten zaio espazio horiek erabiltzeko eguneroko bizitzako jarduerak garatzeko. Beraz, segurtasun-pertzepzioa hobetzeko neurriak hartu beharko dira, espazio publikoan oztupo arkitektonikoak ezabatuz; adibidez, garraio publikoaren geltokiak eraikitzeak material gardenak erabiliz. Era berean, eraikuntzatik segurtasun-sentsazio handiagoa bermatzeko aldaketak ere sar daitezke; esate baterako, balkoiak, terrazak edo begiratokiak ugaritzeak kalean gertatzen dena hobeto kontrolatzeko bidea ematen du, eta, beraz, ikusiak izaten laguntzen dute. Beste ekimen bat eraikinetako beheko solairuetan merkataritza edo ekipamenduak kokatzea da.

Irisgarritasunari eta, oro har, mugikortasunari dagokienez, arreta berezia jarri behar da oinezkoentzako loturetan eta, batez ere, ibilgailuek oinezkoen ibilbideekin bat egiten duten tokietan, hala nola: garaje-irteerak, aparkalekuetarako sarbideak, bidegurutzeak, bideak gurutzatzeko pasabideak eta autobus-geltokiak. Oinezkoentzako ibilbideak seguruak izan daitezen, gomendagarria da honakoak kontuan izatea: errepideetan dauden oinezkoen pasabideak, zoladura mota, oinezkoentzako sarbideak... Irisgarritasun unibertsalaren, segurtasunaren eta garraio publikoaren garapenaren baldintzak hobetzeko jarduerak emakumeen mugikortasuna sustatzen dute, emakumeak baitira garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak mugikortasun jasangarriaren esparruan. Halaber, gomendatzen da azterlan zehatzagoa egitea autobus-geltokien irisgarritasunari eta espazio publikoarekiko loturari buruz, bai eta iristeko zailtasun handienak dituzten eremuekiko konexioa aztertzea ere, hala nola industrialdeekiko konexioa; izan ere, garraio publikoaren erabilera sustatzearekin batera, erabilera unibertsal bihurtzen lagunduko duten neurriak hartu behar dira-eta.

- **Hizkuntza irizpideak**

Parte-hartze tailerretan euskara bermatuko da, eta ahal den heinean, lehenetsiko da. Horretarako, lan-taldeak hizkuntzaren arabera osatzea proposatuko da. Jakina da, bakoitzak eroso sentitzen den hizkuntzan azalduko duela bere burua une oro.

2/

PARTE-HARTZEA

Guztira, bi saioetan 13 pertsoek parte hartu dute, 6 lehenengo saioan eta 7 hurrengoan. HAPO bezalako dokumentu estrategiko baterako, herritarren parte-hartze maila ez da nabarmena izan, baina parte-hartzaileen ekarpenak kontuan hartuta positiboki baloratzen da. Aipatu behar da webgunearen bidez online parte hartzeko aukera dagoela, eta horrek aurrez aurreko prozesuari gehitzen diola, aurrez aurre gerturatu ezin izan duten pertsonen parte hartzeko aukera emanez.

1. saioa:


Eguna: ekainak 16, astelehena

Parte-hartzaile kopurua: 6


2. saioa:

Eguna: ekainak 18, asteazkena


Parte-hartzaile kopurua: 7



Generoari dagokionez, gizonezkoen parte-hartzea askoz handiagoa izan da emakumezko eta ez bitarren aldean, %69,2 eta % 15,4rekin alderatuta, hurrenez hurren. Datu arruntak dira, normalean %60-%40ko proportzioa aurkitzen baitugu, emakumezkoena txikiagoa izanik, baina kasu honetan parte-hartze maskulinoa oso nagusia da. Adin-tarteari dagokionez, parte-hartzaileen %46,2ak 46-60 urte artean dituzte, eta hori ere ohikoa da. Hurrengo adin-tarteak 61-75 urte arteko pertsonak dira, %38,5eko parte-hartzearekin eta 31-45 urte artekoak %15,4ko parte-hartzearekin. 18-30 urte arteko adin-tarteko parte-hartze maila nuloa izan da eta 75 urtetik gorakoena ere, beraz, ondorioztatzen da gazteagoak erakartzeko bide hurbilagoak erabili behar direla, baita adinekoentzako bide eskuragarriagoak ere.



● Emakumea
● Gizona
● Ez bitarra



● 18tik beherakoak
● 18-30
● 31-45
● 46-60
● 61-75
● 75tik gorakoak

3/

ONDORIO OROKORRAK

Jarraian, herritarren ekarpenak eta ideiak jaso dira Alonsotegiko HAPOaren Aurrerakinari buruz, bi parte-hartze tailerretan landutako gai desberdinei buruzko ondorio orokorrak osatuz.



Herritarren ekarpenak honako ordenan jasotzen dira:

- Espazio publikoa eta ekipamenduak.
- Mugikortasuna.
- Espazio librea eta landa eremua.
- Hiri-erlaketarako jarduera estrategikoak.

/ ESPAZIO PUBLIKOA ETA EKIPAMENDUAK

Oro har, herritarrek ados daude ekipamenduetarako eta espazio publikorako proposatzen diren esku-hartzeekin. Udalaren atzean planteatzen den ekipamendu dotazionala positiboki baloratzen da eta oso interesgarria izango litzateke gune honetan gazteak emantzipatu daitezen etxebizitzak edo ostatuak planteatzea. Bestalde, ñabardurak daude landutako proposamenetan, eta dokumentuan aktuazioetan zehatz-mehatz azaltzen dira.

Ekipamenduetarako espazioei dagokienez, ekipamendu berririk behar ez bada ere, ekipamenduetarako azalera desberdina izatea adierazi da. Telefoniako eraikinari (AI-RU.01) dagokionez, ekipamendu pribatu bezala planteatzen dena, "mamotreto" bat dela aipatu dute eta eraikinak ez duela erabilera berriak hartzen laguntzen. Hori guztia dela eta, udalak lurzorua erosteko aukera planteatu dute, AI-RU.01 eta AD.01 jarduketak lotuz. Horrela, Alonsotegiko herritarrek beheko solairuan eta goian etxebizitza publikoak dituen eraikin bat proposatzen dute. Azkenik, Coscojales 24an (AI-RU.07) etxebizitza komunitario bat planteatzea proposatu dute, hiru solairuko altuera duten elkarren ondoko bi eraikin formalizatzea planteatzen baitira.




Espazio publikoei dagokionez, uste da espazio berriak sortu beharko liratekeela etorkizuneko esku-hartzeetarako. Gaur egun, beharrezkoa da futbol-zelaiaren ondoan ekipamendu-lurzorurako espazio librea gordetzea(1), etorkizunean kirol-instalazioak eraiki ahal izateko, adibidez, igerilekuak, gaur egun ez baitira herritarrek beharrak asetzen.



/ MUGIKORTASUNA

Mugikortasunari dagokionez, oro har, oinezkoentzako bideak hobetzea positibotzat jotzen da, baina udalerriko hainbat eremutan lan egitea proposatzen da. Mugikortasunari dagokionez, ekarpen hauek jaso dira:

- Aldundiak Aldanondotik Arbuiora espaloia egiteko aurreproiektua du eta planean sartu behar da.
- Ezberdintasunak daude oinezkoentzako eremuen artean. Adibidez, ibai aldean eta Koskojalesen autoek presentzia handia dute.
- Udala bide publikoen inbentarioa eta katalogoa egiten ari da. Bestalde, Azpiegitura Berdeen planoan (O.02) ez da agertzen Pepirandoko bidea (irudiko lerro urdina), eta bide publiko gisa sartu behar da.



Aldanondo, Erdiko kalean... irisgarritasuna eta urbanizazioa hobetzeko planteatu diren birsortze lanak positiboki baloratzen dira. Zubi zaharra handitzea beharrezkoa ikusten dute, baina kota igo gabe. Bestalde, Arbuion planteatzen den ibai gaineko zubi berria positiboki baloratzen dute. Bidegorriaren sarea oso gai garrantzitsua da, eta proposamen berriak nabarmen hobetuko du egungo sarea. Bestetik, BI 3651 errepidearen izaera aldatzeko eta trafikoa baretzeko egiten den proposamena beharrezkoa ikusten dute.

Herritarren egunerokoa hobetuko luketen hiru esku-hartze nabarmentzen dituzte eta oso ondo baloratzen dira:

- Pertxeta 5 (AI-RU.08): trafikoa kentzea, espazioa libre uztea eta ibaira sarbidea planteatzea ondo baloratzen da.
- Soluburu zona (AI-RU.02): espazio librea eta oinezkoentzako ibilbidea planteatzea proposatzen da, ibaiaren beste aldean aktibatuz.
- Geltokiko errepide berria: Ezinbesteko bidea da, Irauregirako sarbidea hobetuko du.


Garraio publikoko sareei dagokionez, komentatu da gaur egun Fielato eraikina dagoen tokian geltoki berri bat eraikiko dela eta horrela espazio libre berri bat egongo dela herrian. Trenbide sareari dagokionez, metroaren 4. lineako geltokia Kastrexanan mantentzea proposatu dute. Aparkalekuei buruz ez dute ekarpenik egin.

/ ESPAZIO LIBREA ETA LANDA EREMUA


Espazio libreari eta natura-inguruneari dagokionez, Alonsotegiko herritarrek natura mantentzeko eta babesteko nahia azpimarratu dute. Beraien ustez, ingurune naturala eta haren bideak zaindu eta babestu behar dira.

Planteatzen diren espazio libreetan honako ohar hauek egiten dira:

- SGEL-11. Hiri parkea edo udal lursaila. Beste partzelak lortzea estrategikoa da, La Barrankatik sarbidea duen hiri-parkea egiteko (sarbidea autobideko tuneletik).
- Espazio librearekin (1) herritarrek begi onez ikusten dute planteatzen den lotura, baina atzeko espazio librerako sarbidea bermatu behar dela azpimarratu dute.



Bestalde, espazio libre gisa definitu gabeko espaziorik ba ote dagoen galdetzean, Coscojales-Telefónica(1) eta estazioaren ondoko(2) espazioak erabilera horretara bideratu beharko liratekeela uste dute. Bi kokaleku horietan espazio libre estaliak planteatzeko beharra ikusten dute.



/HIRI-ERALDAKETAKO JARDUKETA ESTRATEGIKOAK

Hiri-eraldaketa jarduketa estrategikoen egokitasuna baloratu da, honako parametro hauen arabera: jardueraren kokapena, jardueraren konexioak, aparkalekuak, ekipamenduak, espazio libreak, etxebizitzak eta ekonomia- edo industria-jarduera. Ekarpenak hiri-lurzoru finkatugabearen eta hiri-lurzoru finkatuaren arabera multzokatu eta landu dira.

/ HIRI LURZORU FINKATUGABEA

/ AI-RU.06 ARBUIO 1

Herritarrek positibotzat jotzen dute jarduera, erribera eta ingururako irisgarritasuna berreskuratzen baitira. Zonalde honek eraldatze proiektua bideratua duela adierazi da eta, beraz, HAPOren aurrerapenaren herritarren parte-hartzearen esparruan egindako objektioek ez luketela garrantzi handirik izango. Jarduera hobetzeko neurriei dagokienez, aipatu da interesgarria izango litzatekeela aparkalekua planteatutako eraikinetatik hurbilago egotea.




/ AI-RU.03 LA BARRANKA B (LOIBE)

Herritarrek jardueraren inguruko balorazioa egiterakoan etxebizitzari, espazio libreei eta mugikortasunari buruzko zenbait zalantza adierazi dituzte. Alde batetik, ez da begi onez ikusten errepide ondoko bloke handia. Izan ere, La Barranka ondoan espazio librea uztea proposatzen da.

Etxebizitzari dagokionez, hauek bistak oztopotutzen dituztela esan dute. Honen aurrean, eraikigarritasuna murriztea edo etxebizitza-bloke bat kentzea proposatu dute. Tipologiaren oinarriari dagokionez, ondo baloratzen da B+3 izatea. Ekarpenerako bat blokeak hegoalderantz mugitzea izan da, La Barrankako bizilagunek ikuspegi hobeak izan ditzaten.

Jarduera hobetzeko ekarpenei dagokionez, espaloia eraikitzea eta autobus geltokia egiteko espazioa erreserbatzea proposatzen da(1). Bestalde, Alonsotegiko Udala etxebizitzaren atzeko pasoa beste era batera planteatzen dabil eta egun Hurtado etxekoekin alternatiba bat lantzen ari da(2).

Azkenik, auzotarrek uste dute ez dela beharrezkoa hainbeste etxebizitza eraikitzea.



/ AI-RU.02 SOLUBURU

Orokorrean ekintza hau positiboki baloratu da. Herritarrek uste dute proposamen honek udalerrira modu egokian ixten duela. Bestetik, herriaren eta ikastetxearen arteko lotura egiten laguntzen duela. Begi onez ikusten da bizitegi-guneak gaitzea eta berdeguneak egotea.

Soluburun (A lursaila) bizi den auzotar batek positiboki baloratu ditu bere lursailaren antolaketa eta forma. Auzotarrek positibotzat jo dute etorkizunean jada ordenazioz kanpo ez egotea. Gainera, herritarrek eraikin berrien banaketa egokia dela deritzote.

Hobekuntzei dagokienez, ibaiaren aldean oinezkoentzako bidea egotea proposatu da, eta egoitza baterako leku egokia izango dela esan da, baina ez da zehaztu non.



/ AI-RU.01 IRAUREGI

Herritarrek uste dute planteatzen den aparkalekua ez dela beharrezkoa, inguruan nahikoa dagoelako. Komentatu da hobe dela espazio publiko bat izatea; zehazki, estalitako jolasgune bat.

Udaleko ordazkariak aipatu dute iparraldean bide bat kentzeko asmoa dagoela eta horrela berdegunea irabaziko dela. Alde batetik, noranzko bakarreko zirkulazioa planteatzen da, eta autoak baterian aparkatuko dira. Horrela, 80 bat aparkaleku irabaziko dira (1). Bestalde, hegoaldetik bidegorria egitea proposatu da (2). Eta hasieran aparkalekua planteatzen den aldean, ekipamendu edo estalitako zonarako izan daitekeen berdegune bat proposatzen da(3).


Jarduera hobetzeko neurriei dagokienez, mugikortasuna definitzen ariko dela aipatu dute.



/ AI-RU.07 KOSKOJALES

Oro har, positiboki baloratzen dute jarduera, egungo egoerari irtenbidea ematea eta eremua berreskuratzea egoki ikusten baita. Aipatu da B+2 tipologia dela egokiena eremu horretarako.


Jarduera hobetzeko neurriei dagokienez, esan da positiboa izango litzatekeela lurzorua zati bat jarduketatik kanpo ateratzea(1). Izan ere, gaur egun A eraikinak erabiltzen baitu.



/ AD.02 KOSKOJALES

Alonsotegiko herritarrek positibotzat jo dute aktuazioa. Izan ere, kalearen bihurgunean espazioa irabaztea beharrezkotzat jo dute, baina etxeak aldaketarik ez izatea planteatu dute. Gaur egun dagoen etxea mantentzea komentatu da. Hala ere, batzuek uste dute eraikinaren eta B+3 tipologiaren kokapena inguruaren aldekoa izan daitekeela.


Jarduera hobetzeko neurriei dagokienez, proposatu da AD-02k Telefonticako eraikinaren ekipamenduzko partzela barne hartzea, oraingo forma ez baita oso ona eraikitzeko.



/ AI-RU.08 EL CERRO

Herritarrek positiboki baloratzen dute jarduera, bi hirigune elkartzen direlako eta zonaldean hobekuntza nabarmena antzematen delako. Berdegunea eta ibaira hurbiltzea begi onez ikusten da. Bestalde, positiboki baloratzen da etxebizitzek B+3 eraikuntza-profila izatea.

Hobetzeko eremuei dagokienez, industrialdean esku-hartzeak egin beharko liratekeela aipatu dute (garbiketa, mantentze-lanak edo eraisteren bat).



/ HIRI LURZORU FINKATUA

/ AMU.08 LA BARRANKA

Herritarrek positiboki baloratzen dute jarduera. Izan ere, urbanizazioa, berdeguneak eta auzorako irisgarritasuna hobetzen dira. Aipatu da norabide bakarreko trafikoa arautzen duen transformazio honekin asko hobetzen dela. Oro har, auzotarrek ez dute eraikitze beharrik ikusten. Aparkalekuak ezartzea positiboki baloratu dute, eta jaitsiera noranzko batekoa izatea proposatu dute.

Jarduketa hobetzeko neurriei dagokienez, aipatu dute 1. lurzatia urez bete daitekeela. Hala, parke edo aparkaleku gisa erabiltzea proposatu dute. Bestalde, 2. partzela eremutik kanpo uztea proposatu dute, baina bertan kokatzen den baserria eremuan mantenduz. Azkenik, 3. puntuan espazioa erabiltzen duten herritarrei beren objektu pertsonalak kentzeko eskatu zaie.



/ AA.AD-EQ.01. UDALETXKO PLAZA

Alonsotegiko bizilagunak ados daude esku-hartze honekin. Alde batetik, beharrezkoa ikusten da lurzoru publikoa erabiltzea erabilera horretarako, eta oso interesgarria dela uste dute. Gainera, pertsona batzuek komentatu dute, modu honetan, alboko blokearen mehelinari irtenbide bat ematen zaiola eta fatxadaren gaur egungo itxura konpontzen dela.

